

Tolosa herria 2017



“TOLOSA HERRIA” ARGAZKI LEHIAKETA 2017

Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria 004/2017

BABESLEA

Tolosako Udala, lehiaketa San Joan festetako egitarauaren barruan dago.

PARTEHARTZAILEAK

Parte hartu nahi duten argazkilari profesional nahiz amateur guztiak.

GAIA

Askea, bai adierazpenean, bai teknikan.

LANAK

Aurreko urteetako lehiaketetan aurkeztu gabeko 4 argazki partaideko, gehienez. Argazki guztiak egileak berak eginak izango dira erabat, hau da, ezin izango dute berea ez den elementurik edo atalik argazkian sartu.

Aurkeztutako argazkiek ezin izango dute inolako identifikaziorik eraman ezta ur-markarik ere.

FORMATUA

- JPG formatuko artxiboak (10eko konpresioa).
- 300 ppp.
- Alderik luzeena 4000 pixelekoa izango da.
- Artxibo bakoitzaren tamaina 5 mega gehienez.
- Epaimahaikideek “Adobe RGB 1998” koloregunean ikusiko dituzte argazkiak.
- Artxiboaren izena argazkiaren zenbakiarekin hasiko da eta ondoren, izenburua jarraituko du. Adibidez: 1_egunsentia.jpg

NORA BIDALI

- <https://form.jotformeu.com/Targazki/tolosa-herria-2017>

Parte hartzea dohainik da.

Internetez bakarrik egin daiteke aipatutako helbidera bidalita. Itxaron artxibo karga osoaren oharra agertu arte.

ARGIBIDEAK:

- targazki@gmail.com
- www.targazki.com

JASOTZE DATA

2017ko apirilaren 1.etik maiatzaren 27 arte.

EPAIA

Epaia 2017ko ekainaren 10ean izango da.

EPAIAREN BERRI EMAN

2017ko ekainaren 12an.

SARI BANAKETAREN EKITALDIA

2017ko ekainaren 17an.

EPAIMAHAIA

- Lehenik eta behin, Targazki elkarteko kide batzuek osatutako HARRERA EPAIMAHAIA izango da, aurkeztutako argazkiek arauak betetzen dituztela ziurtatzeko.
- Behin aurreko prozedura bukatuta, argazkilaritza munduan ospe handia duten zenbait argazkilari esanguratsuk osatuko dute epaimahaia.
- Epaia bi saiotan erabakiko da. Lehenengoan, epaimahaiak 40 argazki aukeratuko ditu gehi 15 argazki bertako egileenak. Horiek guztiak izen handiko laborategi batean inprimatu egingo dira Targazki elkartearen kontura.
- Bigarren saioan, argazki irabaazleak hautatuko ditu epaimahaiak, inprimatuta ikusi ondoren.
- Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.
- Epaimahaiaren berri e-mailez emango da.

SARIAK:

Lehen saria: 300 € + urre-koloreko domina.

Bigarren saria: 200 € + zilar-koloreko domina.

Hirugarren saria: 100 € + brontze-koloreko domina.

Bertako lehen saria: 200 € + urre-koloreko domina.

Bertako bigarren saria: 100 € + zilar-koloreko domina.

Bertako hirugarren saria: 100 € + brontze-koloreko domina.

8 eta 16 urte bitarteko gazte tolosarren saria

Lehen gazte saria: 100 € argazki-materialean + urre-koloreko domina.

Bigarren gazte saria: zilar-koloreko domina.

Hirugarren gazte saria: brontze-koloreko domina.

Klasifikazioan Euskal Herriko lehen hiru argazkilariek Argizaiola Lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

Irabazle bakoitzak sari bakar bat har dezake.

SARI BANAKETA

2017ko ekainaren 17an 12:00etan Tolosako Kasinoan.

Ezinbestekoa da sarituak edo beren ordezkariak bertan egotea saria jasoko badute.

ERAKUSKETA

Epaimahaiak hoberen klasifikatutako 40 argazkiak sail orokorrean eta bertakoen sailean hoberen klasifikatutako 15 argazkiak Tolosako Kasinoko areto nagusian erakutsiko dira 2017ko ekainaren 17tik uztailaren 1 arte. Orduetgia 18:30 – 20:00 astelehenetik ostiralera eta 12:00 – 14:00 larunbatean, igandeetan eta jaiegunetan.

KATALOGOA

Erakusketan izango diren argazki guztiekin katalogo digitala egingo da eta Targazki Elkartearen web orritik deskargatu ahal izango da www.targazki.com.

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek aldeztatik onartzea eskatzen du.

Sortu litekeen edozein zalantza edo ezustekoa antolakuntzak argituko du.

Aurkeztutako argazkiak egilearen jabetza izango dira, hala ere, lehiaketaren erakunde antolatzaileak aipatutako argazkiak argitaratzeko eskubidea izango du (foiletoetan, publizitatean, sare sozialetan, lehiaketaren web orrian, ...) edota helburu komertzialik gabe erakusteko eskubidea izango du, beti ere egilearen izena aipatu egingo da.

Saritutako lanak eta finalista gelditutakoak fisikoki erakutsiko diren aleak TARGAZKI elkarte antolatzailearen jabetza izango dira, eta aurrerantzean argitaratu ahal izango ditu, beti ere egilearen izena azalduz eta etekin ekonomikorik atera gabe.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

Bertako egiletzat Tolosan bizi diren pertsona guztiak eta TARGAZKI elkarteko kideak hartuko dira.

Argazkiren batek indarrean dagoen legea urratuz gero, antolatzaileak lehiaketatik botatzeko eskubidea izango du.

Jasotako datuak konfidentzialak izango dira.